

Juan Cruz Lakasta

KAZETARIA

Goresle Herria

Egiako Porrontxoan aurretik, festetan inork presoan argazkiak erakusten badi-tu diru laguntzarik gabe utziko dituela ohartarazi die Donostiako Udaleko gobernu talde sozialistak Jai Batzorde herrikoiko kideei.

Preso baten argazkia publikoki erakustea terrorismoa goreslea ote den oraindik erabakitzeke dute epaileek. Ezker abertzalearen inguruko izatearen batere susmagarri ez den Grande Marlaska jupeak, kazetari batek horretaz galdetu diolarik, erantzun adierazgarria eman dio: “Ekintza bat sozialki onartezina baina penalki garrantzirik gabea izan daiteke”.

Erabakia ezagutzera itxoin gabe, Eusko Jaurlaritza berriaren aginduz, Ertzaintzak presoan argazkiak erakutsi dituzten ehunka herritar identifikatu, atxilotu, salatu ditu. Eta hori guztiori gutxi bailitzan, orain herritarrei polizia lanak egitea exijitzen ari zaie, haien lagunak, ezagunak, auzokoak zelatatzea, ez ditzaten presoan argazkiak erakutsi.

Bistan da ezker abertzale tradizionalako zenbait sektore indarkeriaren goreslea eta presoekiko elkertasuna bereizten dituen marra gorrian mugitu izan direla. Alta, bistan da, halaber, ETaren indarkeriaren kontra egonda, Ertzaintzaren gehiegikerien, presoan eskubideen urraketaren, politiko eta kazetarien espetxeratzearen, alderdien lege kanporatzearen aurka ere egon zaitezkeela. Eta bistan da jarrera horiek guztiak krimi-



JOSU SANTESTEBAN

nalizatzea zuzenbide estatuaren mugak finkatzen dituen marra gorria txikitu egiten duela.

Garai txarrak askatasun zibiletarako, eskubide politikoetarako, adierazpen askatasunerako. Baina Eusko Jaurlaritza berriaren-tzako ere. Krisi ekonomiko alimalekoaren erdian, maniobrarako tarte gutxi. Hala, zigorgabetasunaren aurkako gurutzada haizaten ari da haren jardueraren bandera bakartzat. Baina distrakzio maniobrak funtzionatzen segi dezan, hedabideak elikatu behar. Eta Gargantua asezinok egunetik egunera gero eta gehiago eskatzen dute. Zein ote hurrengoa, ogia erosi aurretik indarkeria gaitzetsi behar izatea?

Bazka klase hori askoz irensgarriagoa da Madrilgo boto-emaeleentzat hementzat baino. Han sinets dezakete presoan argazkien ondano ageri diren guztiak terrorismoaren goresleak direla. Hemen, nekez. Hemen denek dakite ezker abertzale tradizionalak ez ezik EAJk, Aralarrek, EAK eta EBko zenbait buruk presoan eskubideen aldeko manifestazioekin bat egin izan dutela, indar guztion artean EAEko boto-emaeleen erdia baino gehiago ordezkatzeko dituztela eta beraz Lopezen gobernu esaten ari dena dela herritar gehienak terrorismoaren goresleak direla. Juan Luis Zabalak idatzi bezala, ETA, ETA eta ETA: ETAKoa naiz, ETaren kontra nago eta ez dut baterako zein besterako batere gogorik. ■

« Zabalak idatzi bezala:

ETAKoa naiz, ETaren

kontra nago eta ez dut

baterako zein besterako

batere gogorik »

TXANDAN

Castillo Suarez



Iritsi da euskaltegia izena emateko garaia. Euskaldun-

tzea helburu duten erakundeek beste eskaintzen artean nabarmendu behar dute haiena; erakargarriagoa egin euskara ikastea, ingelesa, frantsesa edo beste hizkuntza bat ikastea baino. Gure postontziak eskaintzez betetzen zaizkigun uneen, bildumak hastekoan, euskara ikastearen berezitasunak adierazi behar dituzte. AEKko aurtengo kanpainan ongi argi adierazi dute euskara irakasteaz gain, euskararen mundua ere erakusten dutela. Bestalde, eta euskara ikastea zaila dela

Biderik atseginena

aipatzen denez maiz, metodologia azpimarratu nahi izan dute IKAKoek zein AEKkoek haien lematan: *MetodIKA* eta *Biderik laburrena* (AEK). Metodologiak gain, edo horien gaintetik, euskara ikasteak harreman berriak sortzeko baliagarria dela azpimarratuko nuke nik, bai ikasketa prozesuan bertan eta bai “pistara ateratzerakoan”. Gero eta bakarrago gauden gizarte honetan, bada muntazko arrazoia euskaltegia izena emateko eta barka diezadela autoikaskuntzan aritzeko diziplina eta adorea dutenek, baina euskara ikastea, konpainia noblean egiten bada, askoz ere atseginagoa da. ■